



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko irailaren 19a

105. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00006. Foru-lege proiektua, finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinen gaineko zergari buruzkoa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/ITP-00019. Interpelazioa, haur-pobreziaren aurkako politikari buruzkoa. Javier Arza Porrás jaunak egin du (8. or.).

—11-25/ITP-00020. Interpelazioa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren giza baliabideen arloko politika orokorrari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (9. or.).

—11-25/ITP-00021. Interpelazioa, Su-itzaltze Zerbitzuaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/POR-00294. Galdera, etorkizunean Babes Zibileko eta Larrialdietako Estatu Agentzia sortzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (11. or.).

—11-25/POR-00295. Galdera, gazte migratzaileei zuzendutako prestakuntza- eta enplegu-ekintzei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (11. or.).

—11-25/POR-00302. Galdera, gizarte zerbitzuen arloan biztanle bakoitzeko egiten den inbertsioari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (12. or.).

—11-25/POR-00303. Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera Estatu funtzionarioak Foruzaingoan sartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).

—11-25/POR-00304. Galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (13. or.).

- 11-25/POR-00305. Galdera, Atzerritartasun Erregelamenduaren inpaktuari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00319. Galdera, Ezpeleta Jauregiaren berrantolamenduari eta erakineko patioaren egoerari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00320. Galdera, Nafarroan animaliak identifikatzeko belarritako elektronikoa ezartzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00321. Galdera, eskola-garraio eta -jantokiei buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00322. Galdera, Villatuertan eta Zangozan ireki berri diren adingabeak hartzeko baliabideei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00323. Galdera, Nafarroako Gobernuak 2019tik 2024ra bitarte tutoretzapean hartutako adingabeei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00324. Galdera, klima-aldaketak eragindako kezka dela-eta hartutako neurriei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00325. Galdera, Etxebizitzako, Gazterriko eta Migrazio Politiketako Departamentuk alokairu jasangarriko etxebizitzak bultzatzeko sortu nahi duen sozietate publiko-pribatuari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00326. Galdera, Barasoaingo Martín Azpilcueta HLHIP ikastetxeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00327. Galdera, lesioen edo patologien jatorria lanekoa ez dela uste izateagatik Gizarte Segurantzaren mutua laguntzaileek pazienteak deribatzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00328. Galdera, Sesman paratu nahi den biometanizazio-plantari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/PEOP-00002. Deialdia, oposizio bidez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa. Gai-zerrenda zuzentzea (22. or.).
- 11-25/PEOP-00002. Deialdia, oposizio bidez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa. Epaimahai kalifikatzailea osatzea (23. or.).
- 11-25/ACOP-00016. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Espainiako Vuelta dela-eta izandako mobilizazioei buruzkoa (23. or.).
- 11-25/ACOP-00017. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Global Sumud Flotillari buruzkoa (24. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00006. Foru-lege proiektua, finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zergari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2025eko irailaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez, finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zergari buruzko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Xedatzea finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zergari buruzko foru-lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

2. Ekonomia Eta Ogasuneko Batzordeari esleitzea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamar egun balioduneko epea irekiko da, **2025eko urriaren 6ko eguerdiko 12:00etan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru-lege proiektuari.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zergari buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Abenduaren 27ko 38/2022 Legearen bidez, energiaren arloko aldi baterako kargak eta kreditu-erakundeei eta kredituko finantza-establezimenduei aplikatuko zaizkienak ezarri ziren, fortuna handien aldi baterako elkartasun-zerga sortu zen eta zenbait tributu-arau aldatu ziren. Lege horretan, bada, aldi baterako karga bat ezarri zen, finantzen arloan, kreditu-erakunde eta kredituko finantza-establezimenduentzat, baldin eta interesengatiko eta komisioengatiko 2019ko diru-sarreraren batura 800 milioi eurokoa edo hortik gorakoa baldin bazen. Karga hori 2023. eta 2024. urteetan ordaindu behar zuten.

Geroago, 8/2023 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, eman zen, eta haren bidez neurriak hartu ziren Ukrainiako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko. Errege lege-dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, aipatutako kargaren konfigurazioa berrikusi behar izan zen, tributu-sisteman txertatzeko 2024ko zerga-ekitaldian, eta zerga berria ituntzeko Nafarroako Foru Komunitatearekin.

Estatuan, abenduaren 20ko 7/2024 Legearen bidez, talde multinazionaleri eta talde nazional handiei zuzendutako gutxieneko zergapetze-maila global bat bermatzeko zerga osagarria, zenbait finantza-erakunderen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zerga eta zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoari lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga ezarri ziren eta beste tributu-arau batzuk aldatu. Haren bidez, zerga hau sartu zen Estatuko tributu-sisteman: finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zerga.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruari dagokionez, uztailaren 24ko 4/2025 Legean (Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legea aldatzekoa) jaso da nola egokituko zaion Hitzarmen Ekonomikoa "Finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zerga"ri. Horretarako, 27 ter artikuluan, zerga arautzeko eskumenari eta zerga kudeatzeari eta ikuskatzeari buruzko arauak ezarri dira.

Interes- eta komisio-marjinaren gaineko zerga zuzeneko tributu bat da, eta kreditu-erakundeek, atzerriko kreditu-sukurtsalek eta kredituko finantza-establezimenduek lortutako interes- eta komisio-marjina zergapetzen du, baldin eta marjina hori Espainiako jardueratik badator. Zerga horrek indarraldi mugatua izanen du.

Hortaz, foru lege honen xedea da finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zerga arautzea Nafarroako Foru Komunitatean.

Azpitarratu behar da, orain arte azaldutakoaren arabera, arau-testu hau bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan aurreikusitako premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioekin.

Arauak tributu baten sorrera arautzen du, eta, beraz, beharrezkoa da foru lege mailako arau baten bidez onartzea, maila txikiagoko beste arau-ukerarik kontuan hartu gabe.

Era berean, proportzionaltasun printzipioa ere betetzen da, eskuratu nahi diren helburuak erdies-ten ahalegindu baita.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokio- nez, bermatu da arau-proiektua foru-ordenamen- du juridikoarekin koherentea dela.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, horretaz gainera, gardentasuna bermatuta geldituko da proiektua eta memoria Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian ere argitaratuko baitira, entzunaldia emateko tramitean eta jendaurrean jartzeko tramitean daudenean herritarrek testu horiek ezagutzeko aukera izan dezaten.

Azkenik, efizientziaren printzipioari dagokio- nez, ahalegina egin da arauak ahalik eta adminis- trazio-karga eta zeharkako kostu gutxien izaten eta baliabide publikoen arazoizko erabilera susta- tzen. Ildo horretan, zergadunei eskatzen zaizkien informazio- eta dokumentazio-eskakizunak behar-

beharrezkoak dira zerga administrazioak haien jardueraren kontrola bermatzeko.

1. artikulua. Izaera eta helburuak.

Finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zerga tributu zuzen bat da, foru lege honetan xedatutako moduan eta baldintzetan zergapetzen duena honako hau: kredi- tu-erakundeek, atzerriko kreditu-sukurtsalek eta kredituko finantza-establezimenduek lortutako interes- eta komisio-marjina, baldin eta marjina hori Espainiako jardueratik badator.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege honen aplikazio eremua Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hi- tzarmen Ekonomikoaren 27 ter artikuluan ezarrita- ko irizpideen arabera zehaztuko da.

3. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.

Foru lege honetan ezarritakoa ulertuko da deu- setan galarazi gabe nazioarteko itun eta hi- tzarmenetan xedatuta egonik barne ordenamen- duan txertatu dena, Espainiako Konstituzioaren 96. artikulua arabera.

4. artikulua. Zerga-egitatea.

Zerga-egitatea da Espainian lortzea interes- eta komisio-marjina positibo bat.

Hala, Espainian lortutako interes- eta komisio- marjinatza hartuko da honako hau: 5. artikuluko a) eta b) letretan aipatutako zergadunen interesenga- tiko eta komisioengatiko guztizko diru-sarrerak eta gastuak konputatzetik datorren zenbatekoa, kan- poan utzita atzerrian dauden sukurtsalei egozteko- ak direnak.

5.c) artikuluan aipatutako zergadunen kasuan, Espainian lortutako marjinatza hartuko da zergadun horiei martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera egozten ahal zaizkien interesengatiko eta komi- sioengatiko diru-sarrerak eta gastuak konputatzetik datorren interes- eta komisio-marjina. Legegintzako errege-dekretu horren bidez, Ez-egoiliarren Errenta- ren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bategi- na onetsi zen.

5. artikulua. Zergadunak.

Honako hauek dira hizpide dugun zergaren zer- gadunak:

a) Espainian ezarrita dauden kreditu-erakunde- ak; Kreditu-erakundeen Antolamenduari, Gainbe- giraketari eta Kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 1.2 artikuluko a), b) eta c) letretan daude jasota.

b) Kredituko finantza-establezimenduak; Enpresa Finantzazioaren Sustapenari buruzko apirilaren 27ko 5/2015 Legearen 6. artikuluan daude jasota.

c) Atzerriko kreditu-erakundeek Espainian ezarriak dituzten sukurtsalak.

6. artikulua. Zergaldia.

1. Zergaldia bat etorriko da zergadunaren ekitaldi ekonomikoarekin. Edonola ere, ez da izanen hamabi hilabetetik gorakoa.

2. Betiere, zergaldia bukatuko da:

a) Erakundea iraungitzen denean.

b) Erakundeak Espainian ezarrita egoteari uzten dionean.

c) Irizten zaionean erakundeak galdu egin duela zergadunaren izaera, sozietate-izaera, estatutuak edo araubide juridikoa aldatu dituelako edo beste arrazoiren bat dela eta.

d) Sukurtsalek Espainian jarduteari uzten diotenean edo sukurtsala hirugarren bati eskualdatzen zaionean.

7. artikulua. Zergaren sortzapena.

1. Zergaldia amaitu eta biharamunean sortuko da zerga.

2. Aurreko apartatuan xedatutako gorabehera, 6.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan, zergaldiaren azken egunean sortuko da zerga.

8. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zerga-oinarria izanen da Espainiako jardueratik datorren interes-marjina eta komisioen diru-sarrerak eta gastuak integratzeak eta konpentsa-

zteak sortutako saldo positiboa, 4. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta bat etorri kontabilitatearen arloan aplikatzekoa den araudian ezarritakoarekin. Horiek guztiak jasota daude zergadunaren dago-kion zergaldiko irabazien eta galeren kontuan edo, kasua bada, emaitzen egoera-txostenean.

Aurreko paragrafoko integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa badu, zerga-oinarria zero izanen da.

2. Zerga-oinarria zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bidez zehaztuko da eta, subsidiarioki, zeharkako zenbatespenaren bidez, hala ezarrita baitago Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean.

3. Zuzeneko zenbatespenaren metodoan, zerga-oinarria kalkulatu da abiapuntutzat hartuta interesei dagozkien diru-sarreraren eta gastuen partidak eta komisioei dagozkien diru-sarreraren eta gastuen partidak, bat etorri araututa dagoenarekin Merkataritza Kodean, arlo horri buruzko legeetan eta arau horiek guztiak garatzeko ematen ahal diren xedapenetan.

9. artikulua. Likidazio-oinarria.

Likidazio-oinarria izanen da zerga-oinarriari ehun milioi euro kentzeak emanen duen emaitza. Likidazio-oinarria ezin da inolaz ere negatiboa izan.

Zergadunaren zergaldia hamabi hilabetetik beherakoa bada, ehun milioiko murrizketa hainbatu egingen da, zergaldiak zenbat egun dituen, egun horien arabera.

10. artikulua. Karga-tasak eta kuota osoa.

Kuota osoa lortzeko, eskala honetako tasak aplikatuko zaizkio likidazio-oinarriari:

Likidazio-oinarria – Milioi euro hauetara arte	Kuota osoa – Milioi euro	Gainerako likidazio-oinarria – Milioi-euro hauetara arte	Karga-tasa – Ehunekoak
0	0	750	1
750	7,5	750	3,5
1500	33,75	1500	4,8
3000	105,75	2000	6
5000	225,75	Hortik gora	7

11. artikulua. Kuota likidoa.

1. Kuota likidoa izanen da kuota osoari zergadunari dagokion sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kuota likidoaren ehuneko hogei-ta bost kentzetik datorren emaitza. Horiek guztiek zergaldi berekoak izan behar dute.

Zergaduna baldin bada Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen VIII. tituluko VII. kapituluaren ezarritako zerga-kontsolidazioaren araubidearen bitartez tributatzen duen talde fiskal batekoa, honako hau hartuko da sozietateen gaineko zergaren kuota efektibo gisa: zergadunaren banakako zerga-oinarria adierazten duen kuota horren gaineko proportzioa, 26/2016 Foru Legearen 104.1 eta 105. artikuluen arabera zehaztuta, foru lege beraren 104. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan, hurrenez hurren, aurreikusitako ezabaketak eta eransketak egin ondoren eta zerga-oinarri negatiboak konpentsatu aurretik, zerga-oinarri negatiboak konpentsatu aurreko talde fiskalaren zerga-oinarriaren gainean.

Aurreko paragrafoan xedatuta dagoenaren ondorioetarako, zergadunaren zerga-oinarria negatiboa bada, ezin izanen zaio aplikatu apartatu honetan ezarritako kenkaria.

$$\text{Kenkariaren portzentajea} = \left(1 - \frac{\text{Aktibo osoaren gaineko errentagarritasunaren adierazlea}}{0,7}\right) \times 100$$

4. Kenkariaren zenbatekoa izanen da kuota likidoari portzentaje hori aplikatuta lortzen den emaitza; zenbateko horrek ezinen du gainditu aipatutako kuotaren zenbatekoa.

5. Kenkari hau kontuan hartuko da 14. artikuluan xedatutako ordainketa zatikatuaren zenbatekoa zehazteko.

13. artikulua. Zergaren izaera ez-kengarria.

Zerga hau ez da kengarria izanen ez sozietateen gaineko zergan ez eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan ere.

14. artikulua. Ordainketa zatikatua.

Zergadunek, zergaldia amaitu eta hurrengo bigarren hilabeteko lehenbiziko hogei egun naturalen barnean, ordainketa zatikatu bat egin behar dute, zergaldi horri dagokion zergaren konturako ordainketaren kontzeptuan. Ordainketa egiteko modua eta baldintzak zergen arloan eskumena duen departamentuko titularrak finkatuko ditu.

Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa izanen da zergaldiko kuota likidoa edo, kasua bada, 12. artikuluan xedatutako aparteko kenkariaren arabera

2. Artikulu honetan adierazitako murriztapena dela eta, kuota likidoa ezinen da negatiboa izan.

12. artikulua. Aparteko kenkaria.

1. Zergadunaren aktibo osoaren gaineko errentagarritasunaren adierazlea erreferentziazko balioaren (% 0,7) azpitik baldin badago, zergaren kuota likidotik portzentaje bat kenduko da, adierazle horrek erreferentziazko balioaren aldean izanen duen murrizketari dagokion proportzioan, eta bat etorri 3. apartatuan ezarritako formularekin.

2. Zergadunaren aktibo osoaren gaineko errentagarritasunaren adierazlea, zeina aipatzen baita aurreko apartatuan, honela kalkulatu da: dagokion zergaldiko kontabilitate-emaitza (zerga honi dagokion gastua kontuan hartu gabe) zati zergaldiaren amaierako aktibo osoa, bider ehun.

Aurreko paragrafoan xedatuta dagoenaren ondorioetarako, zergadunaren kontabilitate-emaitza eta aktibo osoa zehaztuko dira bat etorri kontabilitatearen arloan aplikatzeko den araudian xedatutakoarekin.

3. Kenkariaren portzentajea aplikatuko da formula honi jarraikiz:

kuota likido murriztua ehuneko 40ko portzentajeaz biderkatuta ateratzen dena.

Ordainketa zatikatuaren autolikidazioa edo konturako ordainketa egiteko epean ez badago jakiterik zenbat izanen den zergaldiko behin betiko kuota likidoa, behin-behineko zenbatespen bat eginen da, kalkulatzeko metodo frogagarri bat baliatuta. Bereziki, frogagarritzat joko da behar bezala formulatutako kontuen ondoriozko zenbatespena, edo, halakorik ezean, kontu-auditoretzako lanetatik eratorritako zenbatespena, kontuak egiteko eta formulatzeko ondoretarako.

Ez da ordainketa zatikatuaren autolikidaziorik aurkeztu behar, baldin eta kuota likidoa ez bada positiboa, zerga arautzen duten xedapenen arabera.

15. artikulua. Autolikidazioa eta zerga zorra nola ordaindu.

1. Zergadunek zerga autolikidatu eta zerga zorra ordaindu behar dute zergaldia amaitu eta hurrengo bederatzigarren hilabetearen lehenbiziko hogei egun naturalen barnean. Ordainketa egi-

teko modua eta baldintzak zergen arloan eskumena duen departamentuko titularrak finkatuko ditu.

2. Zergadunek ez dute autolikidaziorik aurkeztu beharko, baldin eta beren likidazio-oinarria positiboa bada.

16. artikulua. Itzulketa.

1. Egindako ordainketa zatikatua baldin bada autolikidaziotik datorren kuotaren zenbatekoa baino handiagoa, zerga administrazioak, hala behar denean, behin-behineko likidazioa eginen du aitorpena aurkezteko ezarritako epea amaitu eta sei hilabeteren barnean.

Autolikidazioa epez kanpo aurkeztuz gero, aurreko paragrafoan ezarritako sei hilabeteko epea aurkezten den egunetik hasita kontatuko da.

2. Autolikidaziotik, edo, kasua bada, behin-behineko likidaziotik datorren kuotaren zenbatekoa egindako ordainketa zatikatuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, zerga administrazioak ofizios itzuliko du kuota horren gaineko soberakina. Dena den, behar diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak egiten ahalko dira ondoren.

3. Behin-behineko likidazioa aurreko 1. apartatuan finkatutako epean gauzatu ez bada, zerga administrazioak ofizios itzuliko du autolikidatutako kuotaren gaineko soberakina. Dena den, behar diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak egiten ahalko dira ondoren.

4. 1. apartatuan ezarritako epea igaro eta oraindik itzulketaren ordainketa agindu ez bada zerga administrazioari egoztekoa den arrazoi bategatik, itzultzeko dagoen kantitateari Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 50.2.c) artikuluan aipatutako berandutze-interesa aplikatuko zaio, epea bukatu eta biharamunetik hasita ordainketa agintzen den egunera artekoa, zergadunak hori eskatu behar izan gabe.

5. Itzultzeko prozedura Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 88. artikuluan eta hura garatzen duen araudian ezarritakoa izanen da.

17. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.

Zerga honi eragiten dioten tributuen arloko arau-haustea kalifikatu eta zehatuko dira Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean eta oro har aplikatzeak diren gainerako arauetan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako lehena. Indarraldia.

Finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zerga 2025eko urtarrilaren 1ean hasi eta hurrengo bi ondoz ondoko zergaldietan aplikatuko da.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta ondorioak sortuko ditu 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan, baldin eta aldiok amaitu gabe badaude foru lege hau indarrean jartzen den unean.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/ITP-00019. Interpelazioa, haur-pobreziaren aurkako politikei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako interpelazioa, haur-pobreziaren aurkako politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Pobreziari eta gizarte-bazterkeriari buruzko txostenen arabera, haurrak dira (16 urtetik beherakoak) pobrezia-arriskuan egoteko arrisku han-

diena duten Nafarroako biztanleak. Adibidez, Nafarroako Gobernuaren Haur, Familia eta Nerabeen Estrategia berriaren diagnostikoaren arabera, "goranzkoa da Arope tasak adingabeen artean duen eragina eta Estatukoarekin parekatzen ari da, eta horrek erakusten du biztanleria hori bereziki kaltebera dela Nafarroan".

Nazioarteko hainbat erakundek lehentasunzot jotzen dute haur-pobreziaren aurkako borroka, pobreziaren eta belaunaldien arteko desberdintasunaren zikloak haustea ahalbidetzen baitu. Izan ere, Nafarroaren plangintza estrategikorako hainbat tresnaren funtsezko helburuetako bat da haur-pobrezia murriztea: Pobreziaren Aurkako Ituna; Haur, Familia eta Nerabeen Estrategia; Gizarteratzeko Estrategia.

Horregatik guztiagatik, haur-pobreziaren aurkako politiken ezaugarriei, bilakaerari eta Nafarroan dituzten emaitzei buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafrancari.

Iruñean, 2025eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-25/ITP-00020. Interpelazioa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren giza baliabideen arloko politika orokorrari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako interpelazioa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren giza baliabideen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan aspalditik datorren auzia da plantillaren behin-behinekotasuna, langileak lanpostu batetik bestera txandaka ibiltzea, plantilla zaharturik egotea, bere kargura langilerik gabeko buruzagitzak dituen egitura edukitzea, O-NOZen sartzeko prozesuak konplexuak eta geldoak izatea, langileen ezagutza eguneratzera bideratutako prestakuntza-eredu propiorik ez edukitzea...

Horregatik guztiagatik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko giza baliabideen arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dugu.

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/ITP-00021. Interpelazioa, Su-itzaltze Zerbitzuaren arloko politika orokorrari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako interpelazioa, Su-itzaltze Zerbitzuaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Su-itzaltze Zerbitzuaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari.

Foru Diputazioak 1962ko martxoaren 13an hartutako erabakiaren bidez sortu zenez geroztik eman da Su-itzaltze Zerbitzua. Zerbitzu hori Frantziako estatuan zegoen ereduaren arabera sortu zen; halatan, suteen aurkako zerbitzua eman ohi du eta larrialdietako osasun-garraioko sisteman parte hartu izan du. Gaur egun, zerbitzu bakarra

eta integratua da, Nafarroako lurralde osoan ematen dena, baso- eta osasun-zerbitzuak ematen dituena eta erreskate-talde espezializatuak dituena.

Zalantzarik gabe, denok ohartzen gara zein garrantzitsua den suhiltzaile-zerbitzu sendo eta eraginkor bat bermatzea, giza baliabidez eta baliabide tekniko hornitua, ahalik eta erantzunik onena eman ahal izateko herritarrentzako une zail, konprometitu eta sentikorrenetan.

Interpelazio honen bidez, baloratu eta jakin nahi dugu ea Gobernua ekintza politiko aktibo bat garatzen ari den ala ez, suteen prebentzio eta itzalketa zerbitzua sendotasun horretarantz bideratuko duena.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00294. Galdera, etorkizunean Babes Zibileko eta Larrialdietako Estatu Agentzia sortzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa*BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako galdera, etorkizunean Babes Zibileko eta Larrialdietako Estatu Agentzia sortzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilari Amparo López Antelo andreak ahoz erantzun dezan:

Baso-suteen aurreko erantzuna hobetzeko estatu-ituna eskaini zuenean, Pedro Sánchez presidentek iragarri zuen babes zibileko eta larrialdietako estatu-agentzia sortuko dela.

Hori dela-eta, Geroa Baik honako hau jakin nahi du:

Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera babes zibileko eta larrialdietako estatu-agentzia sortzeari dagokionez?

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-25/POR-00295. Galdera, gazte migratzaileei zuzendutako prestakuntza- eta enplegu-ekintzei buruzkoa*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, gazte migratzaileei zuzendutako prestakuntza- eta enplegu-ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Gero eta anitzagoa den gizarte batean desberdinen arteko bizikidetzak sustatu beharrean, arduradun publikoek herritarren emozioetara eta sentimenduetara jotzen duten adierazpen eta diskurtsoak egiten dituzte egunero, gizartea "Gu" eta "Haiek" artean banatzeko.

Nahikoa da Nafarroako udalerrri bateko alkate batek duela gutxi esandakoa gogoratzea: "etorkinek egundoko kostua eragiten digute", "mena horiek", "eskubide asko dituzte, betebeharririk ez";

Edo legebiltzar honetan entzundako parlamentarien diskurtsoak, "migrazio-inbasioaz" hitz egiten dutenak, immigrazioa delinkuentziarekin lotzen dutenak, migratzaileak artatzen dituzten GKEak pertsona-trafikatzaileak direla diotenak, "saritxoaz" hitz egiten dutenak.

Baina gutxi hitz egiten da babes-sistemako adingabeek eta gazteek parte hartzen duten eta haien gizarteratzea eta laneratzea errazteko diseinatuta dauden beste ekintza, jarduera, prestakuntza edo enplegu-inklusio batzuez.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

Zure departamentua zer egiten ari da gazte migratzaileen prestakuntzaren eta enpleguaren arloan?

Iruñean, 2025eko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-25/POR-00302. Galdera, gizarte zerbitzuen arloan biztanle bakoitzeko egiten den inbertsioari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, gizarte zerbitzuen arloan biztanle bakoitzeko egiten den inbertsioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zioen azalpena

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Kudeatzaileen Elkarteak autonomia-erkidegoen arabera, autonomia-erkidegoek aurrekontuaren gero eta ehuneko txikiagoa bideratzen dute urtetik urtera gizarte-politikerara; 2010ean 3 eurotik 2 bideratzen ziren politika horietara, eta 2024an ehuneko 8 murriztu da hezkuntzara, osasungintzara eta gizarte-zerbitzuetara bideratutako zenbatekoa.

Joera hori areagotu egin da 2024an; izan ere, autonomia-erkidegoen aurrekontuak 9.753,1 milioi euro igo dira eta, aldiz, gizarte-politikerara bideratutako aurrekontua 2.364 milioi euro murriztu da.

Kontseilari andrea, erantzutea gustatuko litzaidake, txosten hori aipatuz, baina zure departamentuaren datu propioak izanez gero: zer aurrekontu-igoera izan du azken urteotan eta zer inbertsio egin du biztanleko gizarte-zerbitzuetan Nafarroak 2024ko ekitaldian?

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-25/POR-00303. Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera Estatuko funtzionarioak Foruzaingoan sartzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera Estatuko funtzionarioak Foruzaingoan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, ahoz erantzun dezan.

Zertan da Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian jasotako "pasabidearen" negoziazioa edo garapena?

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/POR-00304. Galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzea? Nafarroako Gobernuak zer denbora-aurreikuspen darabil emateke dauden emakida horietako bakoitza berritzeari dagokionez?

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/POR-00305. Galdera, Atzerritartasun Erregelamenduaren inpaktuari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Atzerritartasun Erregelamenduaren inpaktuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Atzerritarrei buruzko Erregelamendua, 2024ko azaroaren 19ko 1155/2024 Errege-dekretuaren

bidez onetsia, maiatzaren 20an sartu zen indarrean. Gure taldeak joan den ekainean aurkeztutako mozio batean ohartarazi genuen erregelamendu horrek berekin zekarrela nazioarteko babesaren eskatzaileek eskubideak galtzea.

Onetsi zen mozio horren erabakietako batek honako hau zioen:

• “Nafarroako Gobernua premiatzen da erne egon dadin erregelamendu berri horren aplikazioak kalte egin diezaiekeen edo egoera irregularran gera litezkeen familien eta norbanakoen kasuan, arreta berezia jarrita adingabearen interes gorenaren printzipioaren aplikazioan”.

Erregelamendu hori indarrean jarri eta hilabete batzuk igaro ondoren, galdera hau egin nahi dizugu:

Zer eragin negatibo izan ditu orain arte atzerritarrei buruzko erregelamendua Nafarroan aplikatzeak eta zer neurri jartzen ari da abian Nafarroako Gobernua horiek konpentsatzeko, arreta berezia jarriz adingabeen artean?

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-25/PES-00319. Galdera, Ezpeleta Jauregiaren berrantolamenduari eta erakineko patioaren egoerari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Ezpeleta Jauregiaren berrantolamenduari eta erakineko patioaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren

babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Ezpeleta jauregiaren berrantolaketa eta Departamentuak eraikin horri emanen dion erabilera berria direla-eta:

Zertarako erabiliko da eraikineko patioa?

San Frantzisko Eskolako ikasleek patioa erabil-tzen jarraitu ahalko dute?

Iruñean, 2025eko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/PES-00320. Galdera, Nafarroan animaliak identifikatzeko belarritako elektronikoa ezartzeari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroan animaliak identifikatzeko belarritako elektronikoa ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, animaliak identifikatzeko belarritako elektronikoa nahitaez ezartzeari buruzko honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Nafarroan belarritako elektronikoa ezarri beharra dago 2025eko uztailaren 1etik aitzina. Zertan da ezarpen hori eta zer aurreikuspen dago gailu horien hornidurari dagokionez, atzerapenak edo hornidurarik eza saihesteko?

2. Zer zehapen-araubide aplikatzen ari da Nafarroan betebeharrak betetzen ez bada? Departamentuak betebeharrak horren aplikazioa malgutzea aurreikusten al du, hornidurarik ez badago edo abeltzainekin zerikusirik ez duen egoeraren bat gertatzen bada?

3. Nafarroako Gobernuak baloratu al du abeltzainei laguntza ekonomikoa edo konpentsazioak emateko neurriak ezartzea, belarritako elektronikoa ezartzeak dakarren gainkostua estaltzeko?

4. Zer eragin izan dezake ez-betetzeak Nafarroan Nekazaritza Politika Erkidearen laguntzak jasotzeki begira, eta zer egin du Foru Gobernuak Ministerioaren aurrean abeltzainek kalterik ez izateko?

5. Nafarroak nekazaritza eta abeltzaintzaren arloan dituen eskumen osoen barruan, departamentuak jarduteko zer tarte du Estatuko oinarritzko araudi horren aplikazioa gure lurraldean modulatzeko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/PES-00321. Galdera, eskola-garraio eta -jantokiei buruzkoa*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, eskola-garraio eta -jantokiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Ikasturtea hasi baita, honako hau eskatzen dugu:

– Departamentuak eskola-garraioari aurre egin ahal izateko ezarritako ibilbideak.

– Ibilbide bakoitzaren erabiltzaile kopurua.

– Erabiltzaileak, geldialdi edo abiapuntu bakoitzeko.

– Ibilbide bakoitzaren iraupena.

Eskola-jantokiei dagokienez:

– Laguntzarik gabeko ikasleen kopurua.

– Garraiatutako ikasle-kopurua.

– Despopulatzeko arrisku bizia edo muturrekoa duten herrietatik garraiatutako ikasleen kopurua.

– Ekonomia behartsuko ikasleak.

– Eskualdeko jantokiak erabiltzen dituzten ikasleen kopuru osoa.

– Eskualdekoak ez diren jantokiak erabiltzen dituzten ikasleen kopuru osoa.

Iruñean, 2025eko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/PES-00322. Galdera, Villatuertan eta Zangozan ireki berri diren adingabeak hartzeko baliabideei buruzkoa*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Villatuertan eta Zangozan ireki berri diren adingabeak hartzeko baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer ezaugarri dituzte Villatuertan eta Zangozan adingabeak hartzeko duela gutxi ireki diren baliabideek, zenbat plaza dituzte eta zer profiletarako dira?

Udalerrri horietan bizikidetzeta eta segurtasuna zaintzeko neurririk ezarri al da? Hala baldin bada, zer neurri hartu da?

Iruñean, 2025eko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00323. Galdera, Nafarroako Gobernuak 2019tik 2024ra bitarte tutoretzapean hartutako adingabeei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak 2019tik 2024ra bitarte tutoretzapean hartutako adingabeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Nafarroako Gobernuak zenbat adingabe hartu zuen tutoretzapean 2019an? Horietatik, zenbat ari dira lanean, zer kontratu motarekin eta non?

– Nafarroako Gobernuak zenbat adingabe hartu zuen tutoretzapean 2020an? Horietatik, zenbat ari dira lanean, zer kontratu motarekin eta non?

– Nafarroako Gobernuak zenbat adingabe hartu zuen tutoretzapean 2021ean? Horietatik, zenbat ari dira lanean, zer kontratu motarekin eta non?

– Nafarroako Gobernuak zenbat adingabe hartu zuen tutoretzapean 2022an? Horietatik, zenbat ari dira lanean, zer kontratu motarekin eta non?

– Nafarroako Gobernuak zenbat adingabe hartu zuen tutoretzapean 2023an? Horietatik, zenbat ari dira lanean, zer kontratu motarekin eta non?

– Nafarroako Gobernuak zenbat adingabe hartu zuen tutoretzapean 2024an? Horietatik, zenbat ari dira lanean, zer kontratu motarekin eta non?

Iruñean, 2025eko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00324. Galdera, klima-aldaketak eragindako kezka dela-eta hartutako neurriei buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, klima-aldaketak eragindako kezka dela-eta hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ikerketa Soziologikoen Zentroak klima aldaketari buruz egindako azken baremotik lortutako informazioaren arabera, zer neurri hartzen ari da Nafarroako Gobernua klima-aldaketarekiko herritarren kezka areagotu izanari erantzuteko, batez ere emakumeen eta 45 urtetik goitikoen artean?

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-25/PES-00325. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuk alokairu jasangarriko etxebizitzak bultzatzeko sortu nahi duen sozietate publiko-pribatuari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuk alokairu jasangarriko etxebizitzak bultzatzeko sortu nahi duen sozietate publiko-pribatuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2024ko apirilean, Begoña Alfaro kontseilariak iragarri zuen sozietate publiko-pribatu berri bat sortuko zela, kapital mistoko enpresa bat, Nafarroako Foru Komunitatean alokairu ordainerrazeko etxebizitzak sustatzeko.

2024ko abuztuan, parlamentari naizen aldetik honako galdera idatzi hau aurkeztu nion Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari:

Zertan da sozietate publiko-pribatu hori sortzeko prozesua eta zer aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak horri buruz, denborari eta prozedurari dagokienez?

Departamentuak honako hau zioen erregistroan irailaren azken egunetan sartu zen erantzunean:

"Nasuvinsa eta NEKP batera ari dira lanean bazkide pribatu bat hautatzearekin lotutako askotariko alderdiak aztertu eta zehazteko, alokairuko etxebizitza babestua eraikiko eta kudeatuko duen enpresa misto bat sortzeko. Prozesu horren barnean daude sektore pribatuarekin aldeztu aurretik informazioa trukatzeko ekintzak, bai eskualde mailan bai maila nazionalean. Ildo horretatik, jakinarazten da gaur egun aurretiazko plangintzako prozesu batean gaudela, eta aukera emanen duela epe laburrean lortu nahi den helburua garatzen eta betetzen dela bermatzeko".

2024ko abenduan, beste galdera batzuk egin nituen idatziz erantzuteko, eta hirugarren lehenda-

kariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak erantzun zuen proiektuak garapen-fasean jarraitzen zuela, eta hurrengo hilabeteetan hasi nahi zirela Nafarroako alokairu ordainerrazeko enpresa mistoaren bazkide pribatuaren lizitazio- eta hautaketa-prozesurako izapideak.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzuteko:

Zer aurreratu da sozietate publiko-pribatu hori sortzeko prozesuan?

Zer denbora- eta prozedura-aurreikuspen (kronograma) darabil departamentuak garapen hori burutzeko?

Zertan dira Nafarroako alokairu ordainerrazeko enpresa mistoaren bazkide pribatua hautatzeko eta lizitzeko prozesurako izapideak?

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/PES-00326. Galdera, Barasoingo Martín Azpilcueta HLHIP ikastetxeari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Barasoingo Martín Azpilcueta HLHIP ikastetxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Barasoingo Martín Azpilcueta HLHIP ikastetxeari dagokionez, Hezkuntza Departamentuaren ustez zein da ikastetxe horrek instalazio osoan inolako obrarik egin gabe har dezakeen gehiengo ikasle-kopurua?

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/PES-00327. Galdera, lesioen edo patologien jatorria lanekoa ez dela uste izateagatik Gizarte Segurantzaren mutua laguntzaileek pazienteak deribatzeari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, lesioen edo patologien jatorria lanekoa ez dela uste izateagatik Gizarte Segurantzaren mutua laguntzaileek pazienteak deribatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Enpresaburuen elkarteekin eta sindikatuekin elkarrizketa sozialaren mahaian akordioa itxi eta gero, Gizarte Segurantzaren Ministerioa bultzatzen ari da Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzen diren mutualitateek eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzu publikoek lankidetzahitzarmenak

sinatzea, aldi baterako ezintasun arrunta duten pazienteak artatzeko.

Hala ere, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitate horiek ez dute informaziorik ematen mutualitate horien ustez lanetik kanpoko patologiak edo gaixotasunak izateagatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura bideratzen dituzten langileei buruz.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu.

Ba al dago Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateetatik O-NOZera bideratutako pazienteen erregistrorik, edo haien gaixotasunak edo lesioak lanekoak ez direla argudiatuta mutualitate horiek artatu ez dituzten pertsonena?

Hala bada, zenbat paziente bideratu dira edo ez dituzte artatu Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek eta Nafarroako Osasun Zerbitzutik tratatu behar izan dira, mutualitate horiek diotelako lanekoak ez diren lesioak edo patologiak dituzten pazienteak direla, 2024an eta 2025ean?

Erregistro hori ez badago, zer tresnaren bidez kontrolatzen ditu O-NOZek deribazio horiek, eta nola egiaztatzen du Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitate horiek artatzen ez dituzten pazienteen lesioak edo patologiak lanetik kanpokoak direla?

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/PES-00328. Galdera, Sesman paratu nahi den biometanizazio-plantari buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Sesman paratu nahi den biometanizazio-plantari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan da Sesman proiektatutako biometanizazio-instalazioaren ingurumen-baimen integratua?

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**11-25/PEOP-00002. Deialdia, oposizio bidez betetzekoa Nafarroako Parla-
mentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-
mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta
A mailakoa**

Gai-zerrenda zuzentzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko deialdiko Artxibistika II gai-zerrendako 26. gaia zuzentzearen komenigarritasunari buruz.

Deialdi hori Mahaiak 2025eko ekainaren 16an hartutako erabaki baten bidez onetsi zen, eta erabakia Parlamentuaren webgunean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (2025eko ekainaren 19ko 79. NPAO) nahiz Nafarroako Aldizkari Ofizialean (2025eko ekainaren 19ko 122. NAO) eman zen argitara.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko deialdiko Artxibistika II gai-zerrendako 26. gaiaren zuzenketa onestea.

Honako hau esan ordez: “26. gaia. Dokumentu elektronikoak kudeatzeko metadatuaren eskema (e-EMGDE) 3.0 bertsioa (2024)”

Honako hau esan behar du: “26. gaia. Dokumentu elektronikoak kudeatzeko metadatuaren eskema (e-EMGDE) 3.1 bertsioa (2025eko ekaina)”

2. Artxibistika II gai-zerrendako 26. gaiaren zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/PEOP-00002. Deialdia, oposizio bidez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goimailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa

Epaimahai kalifikatzailea osatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goimailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko deialdiko epaimahaia aldatzearen komenigarritasunari buruz.

Deialdi hori Mahaiak 2025eko ekainaren 16an hartutako erabaki baten bidez onetsi zen, eta erabakia Parlamentuaren webgunean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (2025eko ekainaren 19ko 79. NPAO) nahiz Nafarroako Aldizkari Ofizialean (2025eko ekainaren 19ko 122. NAO) eman zen argitara.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea epaimahaiaren osaera berria, genero-parekidetasunaren irizpideari erantzun diezaion, halako moldez non Mahaiaren ordezkariak honako hauek izanen baitira:

Lehendakaria: María Teresa Esporrín Las Heras andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea.

Ordezkoa: Yolanda Ibáñez Pérez andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen idazkaria.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ACOP-00016. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Espainiako Vuelta dela-eta izandako mobilizazioei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehenengoa:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bere babesa adierazten die nazioarteko zuzenbidea bete dadin eskatzeko gure lurraldeko kale eta mendiak bete zituzten elkarte eta herriei.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak babesten du Israel Premier Tech taldea kanporatzeko eskariarekin bat egin duten pertsonen eskaera; izan ere, taldearen parte-hartzea Israel palestinarren aurka egiten ari den genozidioa zuzitzeko ahalegina da, taldearen jabe den Sylvan Adamsek adierazpen publikoetan esan zuen moduan.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak arbuia egiten ditu gorrotoa pizteagatik pertsona solida-

rioren aurka aurkeztutako salaketak; izan ere, haien eskaera indarrean dagoen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera da, bertan isolamendua eta zehapenak ezartzen baitira nazioarteko zuzenbidea urratzen duen estatuarentzat. Eta Israelek hamarkadak daramatza urraketa horiek egiten.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak aitortzen du Plataforma horren arrazakeriaren aurkako izaera, erabat arbuia baititu antisemitismoa, islamofobia eta beste edozein diskriminazio mota, olinpismoren balioek ezartzen dutenarekin bat.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ACOP-00017. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Global Sumud Flotillari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehenengoa:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bere babesa agertzen dio Global Sumud Flotillari eta bertan parte hartzen duten pertsona eta elkarteei, eta aitortzen die Gazako blokeoari modu baketsu eta solidarioan aurre egitean agertzen duten ausardia.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak irmoki arbuiazen ditu irailaren 9an eta 10ean Tunezen

Global Sumud Flotillak pairatutako dron bidezko bi erasoak.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak dei egiten dio nazioarteko erkidegoari Global Sumud Flotillaren babesa eta segurtasuna berma ditzan.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias